

HERNANIK kronika

2003 urtea
Maiatzak 17
Larunbata
Alea: 772
www.kronika.net

PEDRO SARASOLA IZAGIRRE - 100 URTE BETEKO DITU BIHAR

"Asteasuko pendizetan ohituta, Jauregira etorri eta nekatu ere ez genuela egin behar iruditzen zitzaigun"

■ Pedro Sarasolak 100 urte beteko ditu bihar, eta etxeko zorionaz gain, Erakunde publikoen omenaldia jasoko du gaur ■ Sarasola 1956an etorri zen Asteasutik Jauregiko 'Zozperri' baserrira.

PEDRO Sarasola Izagirre Asteasuko *Aitzetegi* baserrian jaio zen 1903ko maiatzaren 18an. Bederatzi senideten artean hirugarrena, etxera bertara ezkondu zen eta han bizi ziren 1956 arte. Urte hartan familia guztia hartu eta Jauregiko *Zozperri* baserrira etorri ziren. Han hazi zuten familia Joana Goenaga andrea eta biak eta gaur egun Sarasola enea etxearen bizi da (*Zozperri* baino goraxeago), bere se mea, erraina eta ilobekin.

100 urte egiteko ditu Sarasolak eta bere jakituri puxka bat lapurtu asmoz Hernaniko Kronikak hizketa izan du berarekin. Sasoi ederrean oraindik, eta hitzegiteko gogoz aukitzten da Pedro. Lurdes Otermin errainak lagunduta, bere bizitzaren nondik norakoak kontatu dizkio Hernaniko Kronikari.

Bizimodua

Pedro Sarasola baserritik bizi izan da beti. *Aitzetegi* baserrian bizi izandu zen 53 urte arte, eta gero familia guztia hartuta Jauregira etorri ziren bizitza. Berak kontatzen duenez aldaketa haundia izan zen baraintzat Jauregira etortzea. "Asteasun oso terreno malkarretan ohitura geunden eta herrikilik urrutii. Jauregiko zelaietan lanean hasi ginenean, nekatu ere ez genuela egin behar iruditzen zitzaigun".

Ostegunetan Hernaniko azokara eta astelehenetan Tolosakora joaten omen ziren baserriko produktuak saltzera. Ganadu buru batzuk



Pedro Sarasolarenak izandako hizketaldiako momentu bat.

eta baratzako jeneroa izaten zituzten baserrian, eta sagardoa ere egiten omen zuten: 3.000 litro inguru.

Gosea ezagututakoa al den galdetuta, "gosea akaso ez, baino, sekula ase beia (ase gabea)" erantzun digu Pedro.

Mina eta artzantza

Gazte denboran baseria ez zen beste lantegi batzuk ere probatu zituen Sarasolak. 15 urte zituela artzai hasi omen zen auzoko baserriren batean eta 17 urte arte hartan aritu zen. Artzantza utzi eta Aste-

suko minan egin zuen lan 7 hilabetez. Han lanean ari zela, ordea, beren lagun bat harriak azpian harrapatuta hil omen zen eta orduan erabaki zuen Pedro lan hori uztea "hurrengoak geroni izango ginala-ta".

Gerran preso

Gerra garaian preso hartu zuten Pedro. Andazarraren kamioian sartu eta eraman omen zituzten kartzelara. Libratu zuteneko hala konstatzen du Pedro: "libratu ginuztenean, ordea, etxera oinez joan behar gendula

esan ziguten. Ez dakit, aingeruren batek esanaraziko zidan-edo, baina, hala esan nion deklarazioa hartzen ari zen kapitanari: ni ekartzeko baziran ba, eta eramateko ez al dago inor?"

Paulino Uzkudun, Basarri eta Pello Errota

Pedrok gogoan dauka bere herri inguruko jende ezaguna. Uzkudun boxeolaria ezagutu omen zuen, eta Basarri bertsolaria eta Pello Errota ere bai. Baita haien gertaerak ere. "Behin Pello Errotari, baten batek galdu: Pello, gariak zer egin du? Eta Pellok: gariak? Irina eta Zahia, ihota!".

Herri kirolak gustokoak

Pelota, aizkora, bertsolaria... oso gustokoak ditu Pedrok. "Ikusteko danak ederrak", esaten du. Hala ere, berak gustokoena harri jasotzea du. Gogorrena hori izaki, berari gehiena gustatzen zaiona omen da, eta berak ere balio izan zuela komentatu digu. Dioenez, lau pertsona bizkar gainean eramana da Pedro. "24 arroa inguru" (300 bat kilo).

Erretzailea 80 urterako arte

Harrigarria irudituta ere, Pedrok zigarroa erretzen omen zuen 80 urterako arte. Lana ere izugarri egindakoa izan, eta hala ere, sasoi eta umore onez jarraitzen du 100 urte betetza dijoan honetan.

Pedro Sarasola gizaldi batzen leku da, eta horregatik bihar etxera joango zaizkio Instituzioetako ordezkariek. Ondoren, baziaria familiarekin: 14 iloba, 17 biloba... □

Aerobic Maratoia gaur

AEROBIC Maratoia izango da gaur Hernaniko kirodegian, arratsaldeko 17:30etan. Guztira 2 ordu eta erdiko proba izango da eta parte hartzaileak kirodegian behar dute 16:15etan. 16:15etan Spinning demostrazioa izango da. □

Kantuz eguna gaur

KANTUZ eguna da gaur eta Abesbatzak kontzertua emango du urteroko ohiturari segiz. Arratsaldeko 20:00etan hasita 15 kanta eskainiko dituzte Sandiusterrin, urteko lana herriari erakusteko helburuarekin. Kantuzek jakinazi dueñezen denetik izango da gaur: Euskal kantak, tangoak, katalanak. □

'Hitzorduak' kezkatuta

HITZORDUAK taldea kezkatuta dago "Ezker Abertzaleak bultzatzen kandidatura eta plataforma gehienak deuseztatu" dituztelako. Hitzorduak ustez "elkarbizitza hobetu eta ideia eta pertsona guztia errespetatu nahi badira hori ez da bidea". Hitzorduak dio "ados egongo gara talde batek dionarekin edo ez, baina, herri honetako gehiengoak daki hauteskundearako kandidatura bat osatzen dutenak beste hiritarrak bezalakoak direla, eta inondik ere ez mozorro-tutako deabruak". Hitzorduak sinatzaileek konpromisoa berretsi dute "proiektu, idea eta pertsona guztia" defendatzeko eta horregatik Plenoan mozioa apoiatu zuten Alderdiekin bilerak egiteko borondatea azaldu dute. Hitzorduak Kronikara bidalitako prentsa oharra bukaeran dio denon ahaleginak beharko direla arrazoizko konponbide bat aurkitzeko eta ez dituztela ulertzen "lehengo asteburuko pintada eta kartelak". □

Nere Bordara bixita

NERE Borda parkeko zati bat gaur irekiko da. Eguerdiko 12:00etan bixita gidatua egingo da parkea zein egoeratan dagoen ikusteko. Nere Bordan dago ezagutzen den Gipuzkoako *Insignis* pinurik haundieta: 25 metroko luzera eta enborrak 1,4 metroko diametroa ditu. □

Antziola-Motor
Salmenta eta tailer zerbitzua



ford Tourneo Connect

Gogortasunaren forma berria

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

OIALUME
BILTOKIÀ.

Igande eta jaiegunetan
dantzaldia, 19,30etatik

Bihar: EGAN
eta DJ Koldo

OIALUME BILTOKIA



Oialume auzoa
943 55 29 38

Telemar

Itxastele, S.L.



"Plan renove"
89 eurotik.

Aldatu zure Activa
89 eurotik aurrera.

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60



Aurkezlea eta lau Alkateak mahai inguruau, Biteri kultur etxearen.

Transizirotik gaur arteko errepasoak egin zuten Iruin, Uriar, Ezponda eta Etxeberriak

Garaian garaiko egoera gogor eta gozoak kontatu zitzuten, Udaletxe barruan eta gizartean orokorrean ■ Biteriko areto nagusia lepo bete zen.

HERNANIKO Alkateak eta 3 Alkate ohiak mahai inguruau egin zuten ostegunean. Marian Beitialarrangoitiak garai bakoitza kontestualizatu zuen eta Alkateek egoera politikoa eta Udal gestioari egin zioten errepasoak.

Transizirotik gaur arte

Inazio Iruin 1976tik 1979ra izan zen Hernaniko Alkate. Iruinek Udaletxeko balkoian ikurrina zintzilikatu zuten eguna aipatu zuen, bestea. Lau Alkate Martin Villarengana nola joan ziren baimen eske eta nola ikurrina jartzeko baimena ekarri zuten: "Grabatuta geratu zait 1977ko urtarriaren 19 hora. Plaza guztia jendez gainetza zegoen. Ez dut ezagutu Hernanin ekitaldi hura adinako babesera jaso duen besterik. Oso garai gogorrak ziren, baina, egun hura oso haundia izan zen"

Juanjo Uriar 1979tik 1983ra izan zen Alkate. Uriak esan zuenez asko uste gabe iritsi ziren Alkatetzara eta Iruinek berak asko lagundu zien Udaletxeko martxa hartzen. Garai oso gogorrak izan zirela esan zuen Uriak: Batallon Vasco Espanolek hildako jendea, atxilotek... Udaletxean, ordea,

lanerako oso giro ona zutela esan zuen Uriak "orduan PNVrek eta tratu ona lortu genuen Udaletxean eta denon artean ateratzen genituen gauzak aurrera. Garai gogorrak ziren, baina, lortzen zen gauza bakoitzak herriaren babes eta ilusio guztia izaten zuen atzetik eta guk oso konbentzituta eta arropatuta egiten genuen aurrera". Gaur egungo egoera axtzean Uriak esan zuen "besteak" ez daudela lo eta Euskal Herriak herri bezala gehien komeni zaion erantzuna emateko garaia iritsi dela.

Agustin Ezponda 1987tik 1991ra izan zen Hernaniko Alkate. Ezpondak esan zuen ordura arte alderdiek ez zutela herrietako zinegotzi gain presio haundiegirik egiten, baina, garai horretan hasi zirela arazo gogorenak: "guk 8 zinegotzi genituen eta oposizioak 9 eta legegintzaldi guztian izan gineng 8 9ren kontra. Ordura arte PNV eta EEK herrigintza zuten helburu, baina, gauzak asko itxusitu ziren orduan eta lan haundiak izan genituen gauzarik txikienak ere aurrera ateratzeko". Hala ere, Ezpondak esan zuen gauza asko lortu zutela lau urte horietan, "baina lan asko eginda. Urte batean, adibidez, lau pre-

supuesto desberdin aurkeztu behar izan genituen, oposizioak atzera botatzen zituelako". Ezpondak nabarmendu zuen Ezker Abertzaleak Udaletxea irekitzeko ahalegin haundia egin zuela "Udaletxeko araudia aldatu zen jendeak Plenoetan parte hartzeko aukera izateko eta Udaletxea herriari irekitzen lan haundia egin izan dugu. Baina, Rekondo Alkate izan zen garaian atzera egin zuen horrek guztia".

Mertxe Etxeberria da Alkate 1999a ezkero. Udaletxean sartu ziren garaia izan zituen gozoan: Lizarra-Garaziko akordioa eta horren bueltan sortutako mogimendu guztia. Estatuak horrelako mogimendua ikusita hartu dituela azken aldko zenbait erabaki esan zuen Etxeberriak "Estaduak politika neofaxista hasi du lotsagabe, zein diren ahaztu zai-gunean". Alderdia eta buru den plataforma legez kanpo utzita Etxeberriak esan zuen herritik egin behar dela lan berriz ere "ikastolak, euskaltegiak... herriak sortu zituen bere garaian. Orain badirudi bota eman eta politikoek lan egin behar dute-la, baina, herriak hartu behar du berriz ere iniziatiiba, eta datozen garaia ikusita are gehiago" □

HITZ BITAN

✓ FUTBOLA

Hernani-Zestoa, etxeoko azken partiduan. Hernanik Zestoaren kontra jokatuko du gaur Zubipen. Hernanik ez du jokatzen afizioa aho gusto gozoarekin uztea besterik, baina, bada zerbaite. Gaur da Zubipen jokatuko den denboraldiko azken partidua eta Peña Zubipek trofeoa emango dio urteko jokalari onenari. Aurten, Jon Martinentzat izango da trofeoa. Partidua gaur 16:30etan.

✓ UR LUDOTEKA

Ur jolasak umeentzat bihar. Ur jolasak izango dira bihar igerilekuak, umeentzat. Goizeko 10:30etatik 12:30etara. Igeri egin nahi duenarentzat ere izango dira kaleak.

✓ PALA TXAPELKETA

Final laurdenak gaur. Hernaniko pala txapelketan final laurdenak jokatuko dira gaur 15:00etan hasita. Arluza-Esteban/Imaz-Gaizka; Asier-Juan Mari/Inazio-Xapo; Ekaitz-Ruiz/Valero-Galarza; eta Oskar-Iban/Ibai-Iñaki.

✓ ETXERAT

Joxe Jabier Zabaleta 'Baldo' isolamenduan. Joxe Jabier Zabaleta Baldo Curtisen preso dagoen hernaniarra isolamenduan daukate Euskal Herriko beste 11 presorekin batean. Etxerat elkartea firma biltzen ari da 12 preso hauen egoera salatzeko.

✓ SAN JOAN KONPARTSA

Entsaioak gaur. San Joan Konpartsak entsaioak hasiko ditu gaur San Joanetako ekitaldirako. Entsaioak nahi duen guztia-rentzat dira, gaur 17:00etan Udaletxeko arkueetan. San Joan Konpartsak dei egin die orain arte parte hartu duen jendeari eta jende berriari. □

I. URTEBETETZEA

Juan Bautista Artola Irikoste

2002ko maiatzaren 12ean hil zen, 66 urte zituela



Berastegiko Arretxe Txiki
etxearen jaio zihana
bost urterekin jaitotetxik
Altzustara eramaña
Ereñotzu ta Latxe Zaharrean
zenuen bizi poz dana
zu oroitze zure maiteek
badugu nora joana

Bere emazte, seme-alabak, bilobak, anai arrebak eta ezkon anai-arrebek
Urtebetetze meza bihar, igandea, maiatzaren 18an, goizeko 10:30etan,
Ereñotzuko San Antonio parrokan. Aldez aurrelik eskerrak asko.

ZERBITZUAK

■ TELEFONOAK

| | |
|---------------------|------------|
| Taxiak: | 943 550093 |
| Udaltzaingoa: | 943 333288 |
| DYA: | 943 464622 |
| Autobusak: | 943 556662 |
| Anbulatorioa: | 943 006666 |
| Jokalari anonimoak: | 943 331103 |

+ FARMAZIAK

| | |
|---------|---|
| Egunez: | Correa Perkaiztegi 8 943 551933 |
| Gauzez: | Diaz Andoain. Nagusia 19 943 592057 |

IRAGARKI MERKEAK

Etxebizitza salgai Etxeberri. Prezio interesgarria. Tel: 943 55 36 22. (Bazkari edo afari garaian).

Tabernako sukaldean lan egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuek deitu goizet telefono honetara: 943 55 6706

Motoa daukatz salgai NSR 75 markakoa. Oso egoera onean dago. Interesatuek deitu: 943 55 17 01

Urezko pultsera galdu da, Plaza, Kale Nagusia eta Zinkoenea bueltan. Nerea izena jartzen du eta atzetaldean fetxa. Bilatzen duenak deitu: 943 55 55 94 edo 943 33 25 14

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko nituzke, astean 3 egunetan, goiz eta arratsaldez. Interesatuek deitu: 699 14 92 85



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURERA

ERREMONTZE JAIALDIA:

- partidua: Odriozola - Ion / Matxin IV - Agirrezabal
- partidua: Altuna I - Iriarte / Zeberio II - J.Etxeberria
- partidua: Bitoria - Aizpuru / Elizalde - A.Lekunberri
- partidua: Zeberio I - Urko / Matxin III - Urretabizkaia II

KIROLA

ASTEBURUKO PARTIDUAK

| FUTBOLA | Taldeak | No | No | PELOTA | Taldeak | No | No |
|-----------|----------------------|------------|--------------|--|--------------------------------|--------------|--------------|
| Goren. | Hernani-Zestoa | Zubipe | Gaur, 16:30 | E H ko, G ipuzkoako eta Udaibarri txapelketak | | | |
| Emakum. | Vasconia-Hernani | M artutene | B har, 10:45 | P a LG o m | B em ej-B oubeta / Uzkizu-Ruz | K irodegia | B har, 12:00 |
| 1. Errej. | Hernani-M arño | Zubipe | B har, 17:00 | T rinkete | M arthez-M anzistior/Kuku | A noeta | B har, 09:00 |
| Gaz.Oh. | Hernani-T ibar | Zubipe | B har, 15:00 | Jub. T rin. | M kelZumutza / A durtza | A noeta | B har, 09:00 |
| Kad.Oh. | Antiguoko-Hernani | B erlo | Gaur, 12:00 | A lebinak | Lanam endi/N oblo-O taegi | A noeta | G aur, 16:00 |
| Kad.2. | Lehengoakoak-Hernani | H enera | Gaur, 16:00 | A lebinak | U nieta / Lizeaga-Esnaola | A noeta | G aur, 16:00 |
| Hauroh. | A tzigori-Hernani | A listza | Gaur, 11:00 | A lebinak | Lanam endi/Lazkano A rieta | A noeta | G aur, 16:00 |
| | | | | | | | |
| | | | | E remontea - G alatzeta | | | |
| | | | | 1) O drio la - Dn / M atxu IV - A girezabal | G alaneta | G aur, 16:00 | |
| | | | | 2) A luna I- Iriarte / Zeberio II - J.Etxeberria | G alaneta | G aur, 16:00 | |
| | | | | 3) B io riaj-A izpuri / Elizalde - A Lekunberri | G alaneta | G aur, 16:00 | |
| | | | | 4) Zeberio I-Urkoo / M atxu III-Urretabizkaia II | G alaneta | G aur, 16:00 | |
| | | | | ERRUGIA | | | |
| | | | | Sen Kopa | H ernani A tletiko S sebastián | Landaie | G aur, 16:30 |
| | | | | Inf. Eusk. | H ernani D uango | Unbe | B har, 10:30 |

www.kronika.net

kronika

Interneten helbide berrian

